

DESOKUPA AIARALDEATIK KANPORA!

Aiaraldean ere, azken hilabeteetan, etxebizitzaren krisiaren eta honen negozioaren aurpegirik gordinena bizi izan dugu; etxebizitza merkantzia bezala tratatzearen ondoriozko indarkeria-adierazpenak: etxebizitza eskubidea bermatuta ez duten bizilagunak, kale egoeran geratzeko arriskua, desokupazio enpresen presentzia gure kaleetan...

Are gehiago, gaur hemen elkartzearen arrazoia argia da: **Aiaraldeako auzokide bat epaitegitik pasa behar izan da goizean**, AMA Desokupa enpresari aurre egitea egotzita. Nori eta bortxaz eta legez kanpo etxebizitzak desalojatzeko asmoarekin negozioa egiten duen enpresa faxista eta parapolizial bati. Hemendik argi diogu: **beti egingo diegu aurre desokupazio enpresei; Aiaraldean ez zarete ongi etorriak!**

Gure elkartasunik beroena adierazi nahi diogu epaitua izan den kideari, eta aldi berean desokupazio enpresen kontrako borrokaren kriminalizazioa salatu nahi dugu. Borroka honetan berretsi eta eskualdeko herritarrei ere dei egiten diegu txebizitza eskubidearen aldeko borrokan inplikatzeko; izan ere, hau ez da kasu isolatu bat. Langile klase osoari gero eta gehiago eragiten dion arazo orokortua baizik. Etxebizitzaren negozio basatiak gure bizitza baldintzatzen du, eta arazoaren funtsa argia bezain sinplea da: **langile-klaseak bere soldataren zati gero eta handiagoa bideratu behar du etxebizitza ordaintzera, beste batzuk horren kontura aberasten diren bitartean.**

Etxebizitza bat eskuratzeko baldintzak gero eta eskuraezinagoak dira Aiaraldean, are gehiago pertsona migratuen kasuan, pairatzen dugun arrazismo inmobiliario orokorra dela eta. Horrek familia asko etxebizitza partekatuetan edo azpierreentetan bizitzera behartzen ditu, dakartzan ondorio guztiekin.

Desokupazio-enpresa bat izan dugu gure herriko bizilagunak mehatxatzen, baina mehatxu horiei erantzuten jakin duen komunitate bat ere izan dugu: desokuparen aurrean antolatu dena baina ez hori bakarrik, gatazka honetan eta bizitoki-premiari irtenbideak bilatzen inplikatu dena baita ere. Gaur esan dezakegularik gatazka honetan inplikaturako pertsona guztiek bizitoki-alternatiba bat dutela eta ez daudela kalean amaitzeko arriskuan. AMA Desokupa-ri dagokionez, ordea: konponbideak eman beharrean, Amurrion haien presentziak tentsio handiagoa eragin du berez konplexua eta delikatu zen gatazka batean.

Eta azken mezu bat etxebizitzarekin aberasteko asmoz negozioa egiten duten errentistei: **aurrean izango gaituzue!** Gure bizitzekin negozioa egiten ari dira, eta ez gara besoak gurutzatuta geratuko. **Antolakuntza da bidea, eta egoerari buelta emateko ordua da!**

Desokupen eta etxejabeen mehatxuen aurrean, Aiaraldean inor ez etxerik gabe!

En Aiaraldea en los últimos meses, también hemos vivido la cara más cruda de la crisis de la vivienda y de su negocio; manifestaciones de violencia derivadas de tratar la vivienda como mercancía: vecinos que no tienen garantizado su derecho a la vivienda, personas en riesgo de quedar en situación de calle, presencia de empresas de desocupación en nuestras calles...

Es más, el motivo del encuentro de hoy es claro: un vecino de Aiaraldea ha tenido que pasar por el juzgado por la mañana acusada de enfrentarse a la empresa AMA Desokupa. A quién y a una empresa fascista y parapolicial que hace negocio con la intención de desalojar viviendas de forma violenta e ilegal. Desde aquí decimos claro: siempre, siempre, siempre vamos a hacer frente a las empresas de desocupación; ¡en Aiaraldea no sois bienvenidos!

Queremos mostrar nuestra más sincera solidaridad con la persona juzgada y denunciar la criminalización de la lucha contra las empresas de desocupación. Nos reafirmamos en esta lucha y hacemos también un llamamiento a las ciudadanas de Aiaraldea para que se impliquen en la lucha por el derecho a la vivienda, ya que éste no es un caso aislado. Sino un problema generalizado que afecta cada vez más a toda la clase obrera. El negocio salvaje de la vivienda condiciona nuestra vida y el problema es tan simple como claro: las clases populares estamos obligadas a destinar la mayor parte de nuestro salario a pagar la vivienda mientras otros se enriquecen a costa de ella.

Las condiciones para acceder a una vivienda son cada vez más inaccesibles en Aiaraldea, más aún en el caso de las personas migrantes, debido al racismo inmobiliario generalizado que sufrimos. Y esto obliga a muchas familias a vivir en pisos compartidos o subarrendados, con todas las consecuencias que ello supone.

Hemos tenido una empresa de desocupación amenazando a vecinas de nuestro pueblo, pero también hemos tenido una comunidad que ha sabido responder a estas amenazas: **organizándose frente a los desokupas e implicándose en buscar soluciones al conflicto y a la urgencia habitacional**. Hoy es el día en el que podemos decir que todas las personas implicadas en este conflicto cuentan con una alternativa habitacional y no están en peligro de terminar en la calle. Y a Ama Desokupa ni se le ve ni se le espera: lejos de aportar soluciones, su presencia en Amurrio lo único que ha generado ha sido mayor tensión en un conflicto ya de por sí complejo y delicado.

Y un último mensaje a aquellos que se lucran, que hacen negocio con la vivienda, a los rentistas: nos tendréis enfrente. Están haciendo negocio con nuestras vidas, y no nos vamos a quedar de brazos cruzados. Estamos organizadas. Es hora de darle la vuelta a la situación.

Frente a las amenazas de desokupa y de lxs propietarixs, defendemos el derecho a la vivienda en Aiaraldea.

¡Desokupa, nunca más!